

Ekialde Erdiko Bake Konferentzia

Judu-arabiar negoziaketan lehen saioa gaur hasiko da Madrilen

George Bushen eta Mikhaïl Gorbaxoven hitzaldiek emango diote hasiera

Gaur hasiko da Madrilen azken egunotan hainbeste aipatu den Ekialde Erdiko Bake Konferentzia. Atzo Bush eta Gorbaxovok eginiko gailurraren ondoren, gaur biek emango diote hasiera, Felipe Gonzalez lehendakari espainiarrarekin batera arabiar eta juduen arteko negoziaketan lehenengo saioari, urteak, hilabeteak edo egunak iraun ditzaketen negoziaketan lehenengo saioari.

KOLDO ALDABE / DONOSTIA

Helburu indibidualei begiratzea aski da, negoziaketa zailak izango direla konturatzeko. Negoziaketa, hasierako akordioak gabe hasiko da. Israelek behin baino gehiagotan esan du: ez du lurralderik itzuliko. Bere eskaintza, arabiarrentzat onartezina izan arren, 'bakea bakearen truke' da. Aukera bakarra, urruna izan arren, Gazzah-tik piskanaka erretiratzea izango litzateke. «Irtenbide merkea» deitzen diotena litzateke hori. Jerusalem arabiarrek elkarbanatzeari buruz, ez da hitzegin ere egiten Israelen. Hiri Sakratua Estatu juduko «hiriburua betierekoa eta zatiezina» da. Lurralde okupatueta palestinarren autonomia soilik Israelek jarritako baldintzarekin da negoziagarria.

Siria iraultza palestinarren gidatzaile gisa aurkezten da Madrilen. «Bake justu eta orokorra» nahi du, hau da, bakea Israelek okupatutako lurraldeen truk. Hafez el Asad lehendakariak lehentasuna ematen dio Golan mendien itzulerari, Israelek



1967an okupatu zuen lurralde siriarri. Geroztik, Israelekin deklaratu-tako gerran egonik, Siriak badaki dagoeneko ezin duela Soviet Batasunaren laguntza jaso, Estatu juduarekin 'berdintasun estrategikoa' lortzeko. Dimax-en eskaerak Nazio Batuen 242 eta 338 erresoluzioetan oinarritzen dira. Madrileko negoziaketek huts eginez gero, Dimaxkek lasai lasai exigitu ahal izango dio nazioarteko komunitateari, eta batez ere EEBBei Israel zigortzeko, Saddam Husseinen aurka erabili zen zurruntasun berarekin.

Palestinarrak Palestinaren Askatasunerako Erakundearen (PAE) oneritziarekin datoz. Erakunde hau,

nazioartean, lurrik gabeko ia sei milioi palestinarren ordezkari bakar eta legitimotzat jotzen dute. Ordezkaritza palestinarrek konbentzitu dator EEBBek Israelekin izan duten jarrera aldaketa beren aldekoa dela. Hasteko, asentamendu juduen bereha-

lako etetea nahi dute, eta badakite duela gutxi Soviet Batasunetik joandako milioi inguru juduek Palestinako demografia beren aurka jar dezaketela. PAErentzat, EEBBek Israelen politika espansionista geratzeko giltza daukate. Israeldarrentzat be-

Ametsak alde batera uzteko garaia iritsi dela uste du Hanan Ashrawik

MADRIL

Hanan Ashrawi Ekialde Erdiko Bake Konferentzian parte hartuko duen ordezkari palestinarren ordezkaria baikor azaldu da bilera honetan lortu daitezkeen emaitzez hitzegiterakoan. Palestinarrak bere estatu independentea hemendik urte batzutura lortuko dutela espero du Ashrawik. Lurralde okupatueta bizi izan den Literatura ikarakasle honek ametsak alde batera utzi eta errealtateari aurre egin behar zaiola uste du.

Bake Konferentzian nazio arabiarrek palestinarrekiko hartu dezaketan jarrera oso kontutan hartu du Ashrawik. 1978. urtean Egiptok beste nazio arabiarrei ezer esan gabe Israelekin negoziatu zuen Camp Davideko akordioa ez dute palestinarrek ahaztu. Gaur egun Siriak du 1978. urtean Egiptok Israelekin zuen arazo bera. Egiptok Sinai eskuratze-ko palestinarren interesak alde batera utzi zituen. Gaur Siriak Golan mendiak eskuratu nahi ditu eta Israelekin bere kasa akordio ezkuturen



Hanan Ashrawi.

bat sina dezake. Ashrawik, dena den, garbi utzi du 1978. urteko egoera politikoa eta gaur eguneko desberdina direla. Ordezkarik palestinarrek adierazi duenez, gaur egun bloke komunista eta kapitalista jadanik desagertu dira. Ashrawik espero du nazio arabiarrek beren elkartasuna eta

Israelek ez du asentamenduen eraikuntza bertan behera utziko

JERUSALEM

Israelek ez du asentamenduen eraikuntza bertan behera utziko palestinarrek *intifadarekin* amaitzen badute ere. Estatu Batuek Israeleko Gobernuari Zisjordania eta Gazzah-ko lurraldeetako asentamenduen eraikuntza lanak etetea proposatu diote. Horren truke palestinarren altxamendua bukatuko litzateke. Palestinarrak asentamenduen eraikuntza bertan behera eskatu diote Israeleko Gobernuari Madrileko Konferentzia ostean bilerekin aurrera jarraitzeko.

Bake Konferentzia pasa eta gero egin behar diren bileren inguruan ere ez da eztabaidarik falta. Estatu Batuek bilera horiek Madrilen egiteko eskatu badu ere, israeldarrek nahiago dute Ekialde Erdiko zenbait hirietan egin. Yitzhak Shamir lehen ministro israeldarrak ostiralean Israelera itzuliko dela adierazi du. Shamirrek dioenez, larunabata juduen atsedean eguna da eta ez du Madrilen egoteko asmorik. Dena den, Shamirrek ez du oso ondo hartu bere ordezkariari Baké Konferentziako bileretan hitzegiteko eskaini dioten denbora kopurua. Shamirrek Zisjordanian izandako azken atentatua kondenatu du iritsi aurretik. Israeleko Armadak jakin erazi duenez Bake Konferentziak dirauen bitartean ez dituzte bere «ekintza errepresiboak» bertan behera utziko. Bi israeldar hil eta beste bi zaurituta gertatu diren atentatua 'Palestinaren Askapenerako Erakunde' talde batek egin du.

laguntza emango dietela eta ez du uste bakoitza bere aldetik akordioak negoziatzen hasiko denik.

Lurralde okupatueta ordezkaria ez da hain baikor azaltzen ordezkari israeldarrek hitzegitean. Bere ustez, Yitzhak Shamir lehen ministro israeldarrak oztopo eta trampa ugari jarriko dizkie palestinarrei. Ashrawik esan duenez, palestinarrek ez dira Bake Konferentzia bertan behera uzten saiatuko. Israeleko Gobernuak, ordea, bakea lortzeko borondate gutxi izan dezakeela esan du Ashrawik.

Ashrawik Israelek jasan dituen presioak Bake Konferentziara joateko erabakian izan duten eragina ezin duela baloratu azaldu du. Ordezkarik palestinarrek adierazi duenez Estatu Batuek behingoz garbi utzi diote israeldarrei Bake Konferentziara joaten ez badira bere posizioa ahulduko dela. Estaturatuarrak Israeleko Gobernuari dirulaguntza ukatu zionean EEBBek ordura arte Tel Aviveko agintarieki azaldu zuen jarrera leuna erabat aldatu zela azaldu du Ashrawik.

242 eta 338

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Ekialde Erdiko gatazkei amaiera emateko bi erresoluzio historiko onartu zituen.

242 ebazpena 1967ko azaroaren 22n hartu zen, 'Sei eguneko Gerra' eta handik bost hilabetera. Testualki dio «onartezina dela gerraren bitartez lurralde eskuratzea eta kontsideratzen du eskualdeko Estatu guztieri segurtasunez bizitzeko lagunduko dien bake justu eta iraunkorra ezarri beharra dagoela». Bake justu eta iraunkorra egoteko behar dira: 1-«gertatu berri den gatazkaren ondoren Israelek okupatu dituen lurraldeetatik tropa israeldarrak erretiratzea» eta 2-«Borroka guztien eta borroka mota guztiak etetea» era berean «eskualde horretako Estatu bakoitzaren subiranotasuna, lurralde batasuna eta independentzia onartu eta errespetatzea eta horrekin batera bakoitzak beren mugen barnean bakea eta muga seguruen artean bizitzeko duen eskubidea errespetatzea».

Horrez gain, 242 ebazpenak dio, errefuxiatuen arazoari irtenbide justua aurkitu beharra dagoela eta zona desmilitarizatuak eratu behar direla eskualdeko lurralde bortxazintasuna eta independentzia politikoa garantizatzen.

338 ebazpena 1973ko urriaren 22n hartu zen Yom Kippur gerran. Bertan, NBEko Segurtasun Kontseiluak une horretan borrokan zebiltzan estatuei exigitu zien hamabi ordu barru borrokei uzteko zeuden posizioetan. Suetenaren ondoren 242 erresoluzioak zioena betetzen hasteko eskatzen zaie. Erabakitzen du, suetenarekin batera eta une berean, 242 ebazpena betetzeko negoziaketak has daitezela».